

## PROPOSAMENA, DONOSTIAN HIRI HONDAKINEI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO

Udalbatzaren Organo Araudiak 148. artikuluan ezartzen duenez, posible izango da, besteak beste, udal talde batek hala eskatuta eta Udalbatzak aurrez onartu eta gero, gai jakin bat tratatzeko batzorde ez iraunkorrak eratzea, gaia aztertu, proposamenak egin eta antzeko helburuak izango dituztela. Ez dute, baina, erabakitzeko ahalmenik izango.

Donostiako Udalaren lehentasunetako bat hondakinen sorreraren prebentzioa da, bai eta haien kudeaketa hobetzea ere. Hala islatzen da honako plan hauetan: Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planetan, Klima Aldaketaren Aurkako Planean eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean. Plan horietan guztietan prebentziorako neurriak eta hondakinen kudeaketa hobetzeko neurriak ezartzen dira, hondakinen balorizazio materiala maximizatzen saiatuta, baliabideak diren neurrian.

Hondakinak Biltzeko Udal Ordenantzaren xedea da Donostian hiri hondakinen erregimen juridikoa arautzeko tresna izatea, bide publikoen higiene baldintzei, garbitasunari, txukuntasunari eta apaingarri publikoei eusteko, edukiontzien bolumenari arrazoizko aprobetxamendua emateko, ingurumena babesteko eta hondakinak modu egokian kudeatzeko, elementu jakin batzuk gaika bilduz eta birziklatuz.

Bestalde, Donostiako Udalak urtero igotzen du erabiltzaileok ordaintzen dugun zabor tasaren ordainagiria. Aurtengo urrian bertan, herritarrok hondakinen bilketagatik ordainduko dugun tasaren ordainagiria %1'5 igotzea onartu da. Hala eta guztiz ere, zerbitzuaren defizita gero eta handiagoa da, gaur egun 5 milioi eurokoa izanik.

Kontuan hartu behar da, baita ere, Gipuzkoako Aldundiko Gobernu Taldearen jarrera. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana berreskuratu nahi du – aurreko foru arduradunek gaitzesten zuten–. Plan horren arabera, tratamendu planta batzuk egingo dira, probintziako udalerrietan biltzen diren hondakinak kudeatzeko. Planta horietakoren bat Donostiako udalerrian jarriko da; horren adibide, Zubieta Gainean jarri nahi den balorazio energetikoko planta.

Argi dago gure gizartearen garapenak, herritarren ohiturek eta jarri nahi diren tratamendu plantek osatzen duten agertokiak gogoeta eginarazi behar digu gai ugariz, hala nola: erabilgarri dauden azpiegituren gaur egungo egoera; gure udalerriak bilketa arloan dituen eskumenak, eta hobariak ematea hondakinen berreskurapenarekin, haien aprobetxamendurekin, sostengagarritasunarekin eta ingurumenarekin kontzientziatua dauden erabiltzaileei.

Horiek horrela, **Talde Popularrak** honako **PROPOSAMENA** aurkezten du, hurrengo Udalbatzan azter dadin:

- **Batzorde Ez Iraunkor** bat eratzea, gure udalerriko hiri hondakinen bilketa sistema aztertzeko. Aztertu beharreko gaien artean sartuko dira, besteak beste, sistemaren

arrazionalizatzea bera eta zerbitzuaren beste ezaugarri batzuk, hala nola, erabiltzaileok ordaintzen dugun prezioa eta kasu batzuetan ezar daitezkeen hobariak. Hori guztia kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak legealdi honetan abian jarri nahi dituela hondakinak tratatzeko planta batzuk, bai eta planta horiek Donostian izango duten eragina ere.

- Osaera: kide bat udal talde politiko bakoitzeko, boto haztatua emateko eskubidearekin
- Iraupena: 9 hilabete
- Bilera araubidea: hilean behin, gutxienez.

Donostia, 2015eko azaroaren 4a

José María Murguiondo Casal,  
Talde Popularreko zinegotzia